# 4 erreminta. *Irakasleak.*
# 1. partea: DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIORA: non gaude.

(Eremuak: Hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa eta gatazken etika eta eraldaketa)

**4. 1) Ondoko baieztapen hauek 1etik 4ra baloratu ikastetxea non dagoen hausnartuz.**

| | HEZKUNTZA-POLITIKA | 4 | 3 | 2 | 1 | HEZKUNTZA-POLITIKA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Ikastetxeko berrikuntza prozesuak bideratzen dituen Zuzendaritza Talde bat sortzearen alde lan egiten da. | | | | | Ez da ikastetxeak benetan behar dituen berrikuntza prozesuak dinamizatzeko Zuzendaritza Talde bat sortzearen alde lan egiten. |
| 2 | Ikasleen heldutasun pertsonala lortzea, elkarbizitza positiboa eta ekitatea dira gure ikastetxearen hezkuntza-ardatzak. | | | | | Emaitza akademiko onen lorpena eta ikasleak lehiakortasunez aritzeko prestakuntza dira gure ikastetxearen hezkuntza-ardatzak. |
| 3 | Ikastetxeko antolakuntza eta kudeaketan inklusio- eta heterogenetasun-irizpideak aplikatu ohi dira. | | | | | Talde espezifikoak eratzerakoan irizpide homogeneizatzaileak aplikatzen dira, batzuentzat ikasketetan eta portaeretan minimoak eskuratzeko lagungarria dela uste baita eta beste batzuentzat gaitasunak gehiago garatzeko bidea ere bai. |
| 4 | Irakasleek koordinazio eta prestakuntzarako espazio eta denbora daukate. | | | | | Ebaluazio batzarra eta departamentuko bilera dira irakasleen arteko koordinazio-gune bakarrak. |
| 5 | Ikastetxeak prestakuntza plan motibagarria dauka eta jarduerak ikasleei, AZP-ari, familiei eta irakasleei zuzenduta daude. | | | | | Prestakuntza jarduerak ez daude ikastetxetik bertatik antolatuak. Ikastetxeak ez dago prestakuntzarekin kezkatuta, ez du antolatzen. |
| 6 | Autoanalisia eta ebaluazioaren bitartez gure ikastetxean hobekuntza-prozesua sustatzen ari da. | | | | | Hobekuntza eta ebaluazioaren inguruan kanpoko presioa egon arren, honek ez du ikastetxearentzat hobekuntza errealik suposatzen. |
| 7 | Ikasleengan portaera prosozialak sustatzen dira. | | | | | Ikasleen jarrerak izaera-kontua direla, aldatu ezin den zerbait del uste da. |
| | **BIZIKIDETZAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA** | **4** | **3** | **2** | **1** | **BIZIKIDETZAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA** |
| 8 | Harremanak pertsona ororen eskubide eta betebeharretan oinarritzen dira. | | | | | Pertsona eta talde boteretsuek modu autoritarioaz inposatzen dituzte ikastetxeko funtzionamendu-irizpideak. |
| 9 | Hezkuntza-komunitateak elkarbizitza-arauak ezagutu, bere elaborazioan parte hartu eta onartu egiten ditu. | | | | | Elkarbizitza-araudia ezagutzen ez den dokumentua da, zaharkiturikoa eta komunitateak elkarbizitza-tresna bezala onartzen ez duena. |
| 10 | Jokaera prebentiboak gatazkaren aurrean eginiko presazko esku-hartze jokaerak baino ugariagoak dira. | | | | | Ez dago ez aurreikuspenik ezta muga argirik ere, jokaera-mekanismoak ez dira baliagarriak. |
| 11 | Arauak malgutasunez eta zuzentasunez aplikatzen ditugu. | | | | | Araudia ez da bidezkoa eta edonola aplikatu ohi da. |
| 12 | Gure AIA hezitzailea eta inklusiboa da. | | | | | Araudiak eta elkarbizitzarako prozedurek zigor-kutsua dute. |
| 13 | Jende-arteko ezagutza indartzeko eta giro atsegina sustatzeko jarduerak antolatzen dira. | | | | | Estamentu bakoitzak bere irizpideen arabera antolatzen ditu ospakizunak. Horrekin nahikoa dela uste da. |
| 14 | Ikastetxea bizitza eta elkarbizitza onuragarrirako eremu segurua eta atsegina da. | | | | | Ikastetxea toki desatsegina da eta mehatxuek eta umilazioek bizitza eta elkarbizitza onuragarriak oztopatzen dute. |
| 15 | Gatazkei modu eraikitzaile batez egiten zaie aurre, elkarrizketa, enpatia eta asertibitatea erabiliz. | | | | | Diziplina- eta zigor-neurriak administratzeari elkarbizitzaren erregulazioa deitzen zaio. |
| 16 | Berdinen arteko laguntza, komunikazioa eta bitartekaritza ikastetxean elkarbizitza positiborako ohizko estrategiak dira. | | | | | Gure ikastetxean elkarbizitzaren erregulazioa egitura hierarkikoen bitartez egiten da. Hauek jokatu egiten dute aurretik zehazturiko irizpiderik gabe, irizpide ezagunik gabe. |
| 17 | Ikastetxeak elkarbizitza positiboa-proiektuaren garapenerako errekurtso pertsonal eta materialak erabiltzen ditu. | | | | | Ez da pentsatu ere egiten proiektuaren dinamizazio eta garapenerako errekurtso pertsonal eta materialen erabilpenean. |
| | **GATAZKEN ERALDAKETA ETA ETIKA** | **4** | **3** | **2** | **1** | **GATAZKEN ERALDAKETA ETA ETIKA** |
| 18 | Gure ikastetxean autorregulazioa eta elkarrekiko erantzukizuna sustatzen dira elkarbizitza positiboaren eraikuntzarako. | | | | | Errespetua autoritatea eta erresponsabilitatea duenari bakarrik zor izaten zaio, indartsuenaren legeak agintzen du eta norberak ahal bezala defendatzen du bere burua. |
| 19 | Gatazka jende arteko harremanetan errealitate bat dela onartzen da eta pertsonaren zein taldearen garapenari begira elementu baliogarri bat bezala onartzen da. | | | | | Gatazkak sufrimendu hutsa sortzen du, errotik atera behar da eta desordena sortarazten duten errudunek zigorra merezi, norberaren eta taldearen eskarmenturako. |
| 20 | Elkarrizketa, albokoak onartzea, baita bere ezberdintasunak ere, eta akordioen bilaketa dira gure elkarbizitzan ohizko estrategiak. | | | | | Ez dago irizpide adosturik, bakoitzaren estiloaren baitan gelditzen dira elkarbizitzari begirako esku-hartzeak. |
| 21 | Egoera gatazkatsuetan, hasteko, entzun eta laguntza pertsonala gertatu ohi da. | | | | | Gatazkaren bertsio bakarra existitzen da, ez da entzuten ezta inplikaturikoei babestu eskaintzen. |
| 22 | Hezkuntza-komunitate osoarentzat elkar entzuterako, lasaitasunerako eta gatazkaren aurrean irtenbideak bilatzeko denbora eta espazioak sortu egiten dira. | | | | | Gatazka-egoerak sortu ahala jokatzen da, presaka eta arineketan arituz. |
| 23 | Esku-hartze hezitzaileak aurkezten dituen errepertorio bat existitzen da, komunitate osoak onarturikoa. Esku-hartze hauek ekintza, ondorioak, kaltearen erreparazioa eta, batez ere, pertsonen zaintzarekin dagoen lotura bilatzen dute. | | | | | Hutsegitea egin duenari benetan axola zaion eta sufrimendua eragingo dion zerbaitekin zigortu behar zaiola uste da. |

**4. 2) Puntuazioa ondoko grafikora eraman. Hori ikastetxearen profila izango litzateke, zure ustez.**

| | Hezkuntza-Politika | | | | | | | Elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa | | | | | | | | | | Gatazken eraldaketa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 1 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |

**4. 3) Grafikoa aztertu.**

| | Zenbakiak | Oharrak |
|---|---|---|
| **Puntu indartsuak (praktika onak/laguntzak)** | | |
| **Ahultasunak (egoera problematikoak)** | | |
| **Hobetzeko elementuak, eraldatzeko potentzialtasun handiena dituenak.** | | |
| **Hobetzeko elementuak, hasteko egokienak direnak ikastetxerako.** | | |

## 2. partea: GATAZKAK ETA ONDOEZAK. ZERGATIEN IDENTIFIKAZIOA.

**4. 4) Aurreko hausnarketa prozesuan aurkituriko ondoezak eta gatazkak idatzi eta beren egiazko zergatiak bilatu.**

| | Gatazkak eta ondoezak | zergatiak | gertakarien maiztasuna | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | gutxitan | noizbait | askotan | Beti / ia beti |
| Hezkuntza-politika | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| Elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| Gatazken eraldaketa | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |